

2021. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2021ko urtarrilaren 29an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2021/04/13. 67. zk.

IRABAZTEKO ASMOAREKIN HERRI ERABILERAKO LURRAK MAHAI ETA AULKIEKIN OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua: XEDEA

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 106. artikuluan aurreikusitako ahalmena erabilita eta abenduaren 16ko Tokiko Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluan oinarrituta eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorrita, herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasa ezarri da, herri erabilerako lurrak mahai, aulki, tribuna, taula eta antzeko elementuekin hartzeak dakarrena hain zuzen ere.

2. artikulua: EGITATE EZARGARRIA

Tasaren egitate ezargarria honako hau da: Ostalaritzako establezimenduen mahai eta aulki, kupel, banku, publizitate-elementu, apaingarri eta antzekoen okupazioagatik eratorritako herri jabariaren aprobetxamendu berezia, beraz aprobetxamendua egon dagoenean, instalazioak jartzeko lizentzia izan ala ez izan.

3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA

1.- Orokorrean tasaren subjektu pasiboak lizentziak edo emakidak jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak dira. Baita, aprobetxamenduak lizentzia barik gauzatu badira, aprobetxamenduaren onuradunak ere.

2.- Mahai eta aulkiekin espaloiak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo bereziki aprobetxatzeagatik ezarritako tasan, finka eta lokalen jabeak izango dira subjektu pasiboaren ordezkioak.

Horregatik, mahai eta aulkien lizentzia eskatzean higiezinaren jabea nor den, bere izen-abizenak, NAN eta helbidearekin identifikatuta deklaratu beharko du eskatzaileak. Horrela egin ezean, ez da lizentzia eskaria bideratuko.

4. artikulua: OINARRI EZARGARRIA

Herri jabariko erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasaren oinarri ezargarria bide publikoaren kategoriak, aprobetxamenduaren iraupenaren denborak, lizentziaren arabera baimendutako okupazioaren azalerak, edo jadanik okupaturiko azalerak osatzen dute. Aprobetxamenduaren ondorioz merkatuan izango lukeen erabilgarritasunaren balioa erreferentzia modura hartuko da.

5. artikulua. TASA KUOTA

1.- Tasa kuota okupatutako azalerari bide publikoaren kategoriaren arabera finkatutako tarifa finkoari aplikatuta ematen duen emaitza izango da.

2.- Ondorengo tarifa hauek ezarri dira m²-ko edo zatirako:

Guneak	2021 (€)
1. gunea. 1.1 tarifa	51,20
1. gunea. 1.2 tarifa	40,79
2. gunea. 2.1 tarifa	51,20
3. gunea. 3.1 tarifa	31,04
4. gunea. 4.1 tarifa	31,04
4. gunea. 4.2 tarifa	26,91
4. gunea. 4.3 tarifa	24,28
4. gunea. 4.4 tarifa	16,76

Tasaren tarifa hauek *Ostalaritzaren terraza eta mahaiak instalatzeko udal* ordenantzako guneen sailkapena kontuan izanda finkatu dira. Gune hauen sailkapena ordenantza honen eranskinean zehazten da.

3.- Tasa kuotaren emaitza kalkulatzeko begiratokiko elementu guztiak kontuan hartuko dira. Upel eta bankuen okupazioari dagokionez, onartutako lizentzia jasotako azaleraren datua oinarri modura hartuko da. Baimendu gabeko aprobetxamendu kasuetan, unitate bakoitzeko elementu hauen gutxiengoko okupazio azalera m² batekoa izango da.

4.- Ezin izango da tasa kuota murriztu, alta eta baja kasuetarako hainbanaketa kasuetan izan ezik.

5.- COVID-19aren pandemiaren ondorioz eta ostalaritza sektoreari laguntzeko xedearekin, 2020. urteko mahaien eta aulkien okupazio tasaren %100eko hoberia aplikatuko da 2020-01-01 datako atzera eraginarekin

6. artikulua: SORTZAPENA

1- Bide publikoaren aprobetxamendu berrien lizentziak direnean, lizentzia eskatzen den momentuan sortuko tasa.

2- Behin baimendutako eta luzatutako aprobetxamenduak badira, eta tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea eragiten duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da. Kasu hauetan zergaldia urte naturala izango da, baldin eta erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziaren baja espresa eskatzen ez bada.

3- Aprobetxamenduak lizentzia barik egin direla edo lizentziarekin bat ez datozela egiaztatzen bada, dagokion espedientea zabaltzen den egunean sortuko tasa.

7. artikulua: KITAPENA

1.- Kitapen zuzenez kitatuko da tarifetan ezarritako zenbatekoa hileko hainbanatuta, lizentziaren hilabetea barne. Kitapen zuzenez kitatuko da tarifetan ezarritako zenbatekoa hileko hainbanatuta, egiaztapenaren hilabetea barne.

4- Epe laburrerako edo aldi jakin baterako lizentzien kasuan alta eta baja hilabeteak kontuan izanda eta hauek barne hainbanatuko da urteko kuota. Gutxiengoa hilabetea izango da.

5- Baja espresuki eskatu beharko da eta urteko kuota hileko hainbanatuko da eskariko hilabetea barne.

6- Titularitate aldaketaren kasuan titular zaharra eta berriaren artean banatuko da tasa. Titular zaharrari lizentziaren titularitate aldaketa eskari data arte edo frogatutako adierazgarriaren hilabetera arte, hori barne, kitatuko zaio tasa, eta data horretatik aurrera, titular berriari.

8. artikulua: KUDEAKETA

1.- Tasaren kudeaketarako oinarria, lizentziei, baldintzei, nahiz guneei dagokienean, *Ostalaritzaren terraza eta mahaia instalatzeko udal ordenantza* izango da.

2- Lizentzia eskatzean edo okupazioari buruzko edozein erreklamazio aurkeztean interesdunak berak aurkeztu beharko ditu herri jabariaren okupazioari buruzko datu guztiak, besteak beste, kokapen zehatzaren planoak, azalera eta argazkia.

ERANSKINA

Tarifen aplikaziorako sailkapena:

Eremuak (alfabetikoki ordenatuta)	Terrazen ordenantzako guneak	Tarifa
ADUBIDXE		4.2
AGIRRE AUZOA	4	4.4
AKURIO KONTRAMAISUA	4	4.2
ALDATSETA KALEA	3	3.1
ALMIKA AUZOA	4	4.4
ALMIKE BIDEA	4	4.3
ALMIKE KALEA	4	4.1
ANASAGASTI TAR TEODORO	4	4.1
ANDER DEUNA AUZOA	4	4.4
ANDER DEUNA BIDEA	4	4.2
ANDRA MARI KALEA	3	3.1
APIOZA KALEA	3	3.1
ARANA TAR SABINEN E.	1	1.2
AREILZA KALEA	3	3.1
ARANE AUZOA	4	4.4
ARITZATXU (HONDARTZA)	4	4.4
ARITZATXU BIDEA	4	4.1
ARMENDURUA KALEA	3	3.1
AROSTEGI KALEA	3	3.1
ARRANTZALEEN KOFRADIA	4	4.1
ARRESI KALEA	3	3.1
ARRESKUENAGA KALEA	3	3.1
ARRANOTEGI AUZOA	4	4.4
ARTIEDA TAR INIGO	4	4.2
ARTIKA AUZOA	4	4.4
ARTIKE BIDEA	4	4.2
ARTZA KALEA	3	3.1
ASKATASUN BIDEA	4	4.1
ATALDE KALEA	4	4.1
AURREKOETXEA KALEA	3	3.1
BARATZ-EDER	4	4.3
BARBARA DEUNA KALEA	3	3.1
BARRUETA TAR BENITO	4	4.2
BAZTARRE KALEA	1	1.2
BIDEBARRIETA KALEA	3	3.1
Bide gorria- Ataldeko luzapena	4	4.3

BIZKAI BURU KALEA	4	4.2
BIZKAIKO JAURERRIA	4	4.1
BOLATOKI KALEA	3	3.1
BURUJABETASUN ZELAIA	4	4.3
DEMIKU AUZOA	4	4.4
DIBIO KALEA	4	4.2
DOLARIAGA KALEA	4	4.1
DONIENE KALEA	3	3.1
ELKANO TAR JUAN SE.	4	4.2
ERAUZKIN TAR JOSE A/ Artike enparantza	4	4.1
ERREMEDIO KALEA	3	3.1
ERREÑEZUBI KALEA	4	4.1
ERRETEN LAMERA	4	4.1
ERRIBERA KALEA	4	4.1
ERTZILLA KALEA	3	3.1
ESKINARRUAGA	3	3.1
ESKOIKIZ	4	4.1
ESPARRU KALEA	4	4.1
ESPARRU ZEHARKALEA	4	4.2
ETXEBARRIA TAR KRE.	3	3.1
EUPEME DEUNA KALEA	1	1.1
FIELATO ENPARANTZATXOA	4	4.1
FRAILE LEKU KALEA	1	1.1
GARAVILLA TAR JOSE	4	4.2
GAZTELU ENPARANTZA	1	1.1
IBARLUZEA TAR KOSME	2	2.1
INDAR ESKILARAK	3	3.1
INTXAUSTI KALEA	3	3.1
IPARRAGIRRE KALEA	4	4.2
IRAKASKINTZA KALEA	3	3.1
ISPIZUA TAR SEGUNDO	4	4.1
ITXAS-BEGI	4	4.3
KALE ILUNA	3	3.1
KALE ISTUA	3	3.1
Kiroldegiko aparkalekua eta kiroldegi ingurua	4	4.3
KLARA DEUNA ESKILA.	3	3.1
KURTZIO	4	4.2
KURTZIO AUZOA	4	4.2
LAMERA	2	2.1
LAMERA TXIKI ENP.	4	4.1
LANDABASO industrialdea	4	4.4

LANDATXUKO ESKILAR.	3	3.1
LOPE DIAZ DE HARO	2	2.1
MAÑU AUZOA	4	4.4
MARTIN DEUNA KALEA	4	4.2
MATXITXAKO BIDEA	4	4.2
MENDOZA KARDENAL	3	3.1
MIKEL DEUNA AUZOA	4	4.4
MIKEL DEUNA BIDEA	4	4.2
MIKEL DEUNAREN ENP	3	3.1
MORONDO	4	4.2
NARDIZ TAR BENANZIO eta portu zahar osoa	1	1.1
NARDIZ TAR GONZALO	4	4.1
NARDIZ TAR JON	3	3.1
NEKAZARI KALEA	3	3.1
OKARANTZA	4	4.2
ONDARRABURU KALEA	4	4.1
ONGINTZA KALEA	3	3.1
PELAIO DEUNA auzoa	4	4.4
PRANTZISKO D. ENPAR	2	2.1
PRANTZISKO D. KALEA	2	2.1
PRANTZISKO DEUN AT.	2	2.1
SANTAMAÑE	4	4.1
TALAKO ANDRA MARI	4	4.2
TALAKOETXEA KALEA	3	3.1
TALARANZKO KALEA	3	3.1
TELLAETXE TAR JOSU	4	4.2
TONPOI BIDEA	4	4.2
TORRONTERO ENPAR.	3	3.1
TORRONTERO KALEA	3	3.1
TORRONTEROKO ESK.	3	3.1
TRAKE KALEA	4	4.1
TXIBITXIAGA	4	4.1
TXIBITXIAGA (BL)	4	4.3
UTSA ESKILLARAK	3	3.1
ZARRAGITXI	4	4.3
ZUBIAUR TAR KEPA	4	4.2